


Lortutako produktuak



POLYBOARD softwarea, zenbakizko kontroleko makinetan mekanizatze beharrezkoak diren diseinua eta programazioa egiten dituena.

Mekanizazio zentro batekin komunikaturiko gune teknologikoa.

Ekipamendu informatikoak, ordenagailuak, inprimagailuak eta proiektoreak, beharrezkoak direnak datuak transmititzeko, diseinua koordinatzeko eta elementuak fabrikatzeko.

Sarbidea sortutako produktuen liburutegi digitalerako sarbidea.

Autoikaskuntzarako ikus-entzunezko materiala, ikasleek, irakasleek edo profesionalak erabiltzeko.

Iruñeko "San Juan-Donibane" IIko Zurgintza departamentua altzariz hornitzeko proiektua; osagaiak, hauexek:

- Tamaina handiko apalategia, apalak eta ate-ertz kurbatuak.
- Tamaina handiko mahaia, tiraderen zortzi modularekin.
- Bi moduluko apalategia.
- Mahai jarraitua, bost ordenagailu jartzeko modukoa

DI.EG.TEK.

Diseinua, egurra eta teknologia

Ikastetxea

Iruñeko "San Juan-Donibane" II

Koordinatzailea

María Arántzazu Delgado Sola

Irakasleak

Alfonso Erro Ibero

Alfredo López Blanco

Alfonso Roncal Los Arcos

Helburua

- Altzari modularrak diseinatzeko eta fabrikatzeko sistema bat zehaztea, inguruko enpresetan daudenen antzeko zenbakizko kontrolako makina baterako software laguntzaile baten bidez.
- Diseinatzeko software hori zenbakizko kontrolako ikasgelako ekipamendu informatiko guztietan instalatzea.
- Munta eta zailtasun desberdineko zenbait kasu praktiko egitea, hala nola "Zurgintza departamentua altzariz hornitzeko proiektua".
- Ikus-entzunezko materiala, autoikaskuntzarako zenbait eskuliburu eta artxibo informatikoen liburutegi bat prestatzea, erdi eta goi mailako zikloetako irakaskuntza-ikasuntza prozesuan erabiltzeko.
- Goi mailako zikloan irakasten duten irakasleei softwarearen erabileraren eta diseinatzeko eta fabrikatzeko sistemaren gaineko prestakuntza ematea, moduluak koordintatzeko eta ikasleen errendimendua handitzeko.

Ezaugarriak

Altzari angeluzuzenak diseinatzeko eta fabrikatzeko sistema POLYBOARD softwarean eta zenbakizko kontrolako makinekiko fabrikazioan oinarritzen da. Gai da produktuak sortzeko bezeroak eskatutako ezaugarri teknikoaren arabera. Piezakatzea egiten du, behar diren material kopuruak kalkulatu eta, orobat, aurrekontuak, dokumentazio grafikoa eta mekanizazio zentroetarako behar diren mekanizazioak egiten ditu. Metodoak kalitatea, produktibitatea eta lehiakortasuna handitzen ditu produktuak garatzeko orduan. Alderdi hauek nabarmendu behar dira:

- POLYBOARD softwareak ezarpen maila handia du sektorean.
- Produktuak sortzen ditu eta liburutegian gordetzen ditu.
- Barne hartzen du gune bat altzariz hornitzeko simulatzaile bat, gainazalen testurak dituen.
- 3Dko simulatzailean produktuak ditu, erabiltzen diren material eta burdinekin.

PROIEKTUAREN ERABILGARRITASUNA

Ikasleentzat:

Erdi mailako zikloko 2. ikasmilako eta goi mailako zikloko 1. eta 2. ikasmiletako ikasleek egunero erabiltzen dituzte sistema osatzen duten elementu guztiak. Gainera, teknologiaren eraginkortasuna esperimentatzen dute, eta fabrikatutako produktuak ikusten dituztenez, gehiago jakin nahi dute. Modu zuzen eta positiboan eragiten du ikasleen jarreran.

Irakasleentzat:

Altzariak diseinatzeko eta fabrikatzeko merkatuan dagoen teknologiarik aurreratuena ezagutzea eta erabiltzea. Gai izatea sektorean erreferenteak diren enpresek erabiltzen dituzten sistemak aztertze eta balioesteko.

Ikastetxearentzat:

Ikasleentzako eta profesionalentzako erreferente izatea, ikastetxera jo dezaten altzari modularrei aplikatutako sistema berrien gainean duten ezagutza osatu nahi dutenean.

